

UR BIZITAKO IKASTAROA AZAROAK 2013

IKASTAROAREN AZALPENA

JARDUERA	UR BIZIAK		
Deskribapena:	Ur bizietan maila gutxi edo ezagupen gutxi dutenentzat ur bizitako ikastaro bat antolatuko dugu. Horretarako asteburuko ikastaro intentsibo bat eskaintzen dizuegu, bere alde teoriko eta praktikoarekin. Ikastaroan zehar teorian ikasitakoa praktikara eramango dugu. Nire iritziz erreka jaitsiera piraguismoko modalitatearik politenetarikoak da. Uraren mugimenduak ikasi ostean ez zaizu hain zaila egingo eta ziur nago gustua hartuko diozula. Gainera ikastaroa Euskal Herriko txokorik ederrenetarikoan egingo dugu.		
Helburu orokorrak:	<ul style="list-style-type: none"> - Uraren mugimenduak ezagutu - Ur bizitan nabigatzen ikastea - Praktikarako materiala eta ekipamendua ezagutu - Ziurtasun osoz erreka jaitea - Erreskate eta auto-reskateko praktikak egin - Errekaren terminologia ezagutu 		
Prezioan barne:	Praktikarako materiala, seguruak, irakaslea		
Preziotik kanpo:	Ostatua		
Iraupena:	Ostiral arratsaldetik igande arratsalde arte.		
Lekua:	Bidarrai (Euskal Herriko iparraldea)		
Data:	Azaroak 29,30- Abenduak 1.		
<p>Planing-a \implies</p> <p><u>1. EGUNA</u>- Ostiral arratsaldean irten (irteera ordua goazenon artean erabakiko dugu). Afaldu aurretik larunbatean praktikarako beharrezkoa den teoria ikusi. Afaldu eta lo egin.</p> <p><u>2. EGUNA</u> – Larunbat goizean gosaria hartu ostean aurreko eguneko errepaso labur bat, prestatu eta errekaratik ariketak egitera joan. Errekan pikoteotxue egin eta arratsaldean saioarekin jarraitu. Dena batu eta dutxa hartu eta gero atsedean hartu eta afaldu.</p> <p><u>3. EGUNA</u> – Igande goizean, gosaria hartu ostean errekaratik joan ariketa teoriko-praktikoak egitera. Arratsaldean dena batu ondoren amaitutzat emango diogu ikastaroari.</p>			
PREZIOA	120€	ZMT Bazkideek	100€
Ostatuari dagokionez, Bidarrai herrian mendizaleen aterpe bat dago eta gaua pasatzea nahiko merkea izaten da. Bertan sukaldatzeko aukera dago, beraz, gosaria eta afaria hemendik eraman dezakezue. Edo nahi izanez gero denon artean			

erosketak egin ditzakegu. Aterpean lo egitea nahi izanez gero abisatu eta bertako helbide elektronikoa pasa diezazueket.

Garraioari dagokionez, enpresako furgonetan lekua dago, kontuan izan behar duzue bidetik ez garela askorik desbideratu zuek batzeko..

Interesatuta bazaude edo dudarik badaukazue badakizue, galdetu beldur barik!

Ondo ibili eta eskerrik asko

Telf. 655727882

ubideabentura@hotmail.com

